

Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

Aztarnaren Bingoa



 Ekintza

HELBURUAK

Gure eguneroko bizimoduko jarduerak (nola bizi garen, nola eta zer kontsumitzen dugun, nola mugitzen garen...) naturan eta ingurumenean eragina dutela ohartzea.

HORREKIN LOTUTAKO GAITASUNAK

Gaitasuna kultura zientifikoan eta teknologikoan

MATERIALA

- Ama erraldoia. Testua: Añorga, Pello. Irudiak: Mitxelena, Jokin. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentrala, 2008.
- Papera (erabilia), arkatzak, plastilina gorria, laranja eta horia.

ITURRIA

- Ecologistas en Acción, "Hiriak eta klima-aldaketa" kanpaina" www.ecologistasenaccion.org/rubrique362.html

Gaiari ekiteko, **Ama erraldoia** liburua irakurri.

Irakurri ondoren, testuaren gaineko iruzkin bat egin, ideia hau ardatz harturik: zaindu egin behar dugu Lurra, bizitzeko behar dugun guztia hark ematen baitigu; zerbait egiten dugun bakoitzean, zerbait gertatzen zaio Lurrari ere, aztarna bat uzten dugu, zati bat kentzen diogu...

Galdera- eta erantzun-bingo baten bidez, bizitzeko behar baino gehiago nork gastatzen duen eta aztarna edo arrastorik handiena nork uzten duen kalkulatu behar dugu.

Esan ikasleei oinutsik jartzeko eta paper berrerrabiliko orri batean oinaren aztarna marrazteko. Orri hori erabiliko dugu aztarnaren bingoko txarteltzat.

Irakasleak, berriz, plastilinazko kubotxoak (horiak, laranja, gorriak) ebaki eta ikasleen artean banatu behar ditu, erantzunen arabera. Plastilina zatitxo horiek dira joko-fitxak: kubotxo horiak gure aztarna ekologikoa murrizten duten jardueri dagozkie; laranja kolorekoak, berriz, hobetu beharreko jardueri; gorriak, azkenik, gure aztarna ekologikoa handitzen duten eta aldatu behar ditugun jardueri.

Ikasleek, galdera bakoitzari erantzutean, aztarnaren inguruaren barruan zabaldu edo zanpatu behar dute dagokion kubotxoa, eta inguru betetzen saiatu. Hartara, txartela (kartoi) bete egingo dute. Jokoa amaitutakoan gure aztarna gorria bada, Lurrarekiko gure jokabidea ez da zuzena; laranja bada, berriz, hobetu egin behar dugu gure jokabidea, denon etxea (Lurra) zaintzeko; horia bada, azkenik, ongi ari gara zaintzen Ama Lurra.

Zer koloretakoa da nire aztarna? Amaitutakoan, berrikusi aztarna guztiak. Denak horiak dira? Ezer egin dezakegu hobetzeko?

Gure marrazkiaren azpian, tarte huts bat utzi behar dugu, gure aztarnaren kolorea hobetzeko konpromisoa han sartzeko. Horrez gain, etxera eramane dezakegu lan hau, eta familiarekin horretaz hitz egin.

Oharra: ekintza taldeka ere egin daiteke

Galdera-sorta

1	Nola etortzen zara ikastetxera ?	Autoz	Garraio publikoan	Oinez edo bizikletan
2	Zenbat auto ditu zure familiak?	2 edo gehiago	1	0
3	Zenbat bidaia egin dituzu hegazkinez aurten?	2 edo gehiago	1	0
4	Saiatzen zara zure etxeko gela hutsetako argiak itzaltzen?	Ez, normalean piztuta uzten ditut argiak	Batzuetan	Bai, beti
5	Telebista, DVDA, ordenagailua... itzal-tzen dituzunean, entxufeak atera eta itzali egiten duzu konexio-blokea?	Ez, normalean piztuta uzten ditut argiak	Batzuetan	Bai, beti
6	Nola ospatzen duzu zure urtebetetze-eguna?	Merkataritzazentro batean ospatzen dut	Litxarrerria-poltsak eramaten ditut ikastetxera	Bizkotxo bat egin eta ikastetxera eramaten dut
7	Astean zenbatetan jaten dituzu arraina, haragia, arrautzak, hestekiak...?	Otordu guztietan	Maiz	Inoiz ez, edo ia inoiz ez
8	Non egiten dituzue erosketak?	Merkataritzazentroetan egiten ditugu beti	Auzoko dendetan eta merkataritzazentroetan egiten ditugu erosketak	Auzoko dendetan erosten dugu beti
9	Bereizten duzu zaborra etxean?	Batere ez, edo ia batere ez	Zerbait: beira, plastikoa...	Dena. Konposta ere egiten dugu
10	Nola garbitzen zara?	Bainatu egiten naiz	Dutxatu egiten naiz, amaitu arte kanila zabalik dudala	Dutxatu egiten naiz, eta itxita edukitzen dut kanila xaboa eman bitartean
11	Astean zenbatetan jaten dituzu litxarreriak?	Egunero jaten dut bateren bat	Larunbatean eta igandean	Inoiz ez
12	Zer egiten duzu jostailu zaharrek?	Zakarrontzira botatzten ditut	Gorde egiten ditut	Jostailurik ez daukaten beste ume batzuei ematen dizkiet

Gorria

Gure aztarna ekologikoa
HANDITZEN duten jarduerak

Laranja

HOBETU beharreko jarduerak

Horia

Gure aztarna ekologikoa
TXIKIAGOTZEN duten jarduerak